

Markel Olano Arrese jauna  
Harkaitz Millan Etxezarreta jauna (Markel  
Olano Arrese jaunak ordezkatua)  
Gorka Artola Alberdi jauna  
Jesús de Andrés Sanz jauna  
Ander Aizpurua Susperregi jauna  
Adolfo Morais Ezquerro jauna  
Iñaki Esparza Leibar jauna  
Maite Barruetabeña Zenekorta andrea  
(idazkaria)  
Juan José Álvarez Rubio jauna (gonbidatua)

**UNED BERGARA  
FUNDAZIOAREN BILERAREN  
PATRONATUKO BILERAREN  
AKTA, ZEINA 2021KO  
MARTXOAREN 18AN EGIN  
BAITZEN GIPIZKOAKO FORU  
ALDUNDIKO JAUREGIAN.**

2021ko martxoaren 18an, 12:30ean, bildu ziren Patronatuko kideak, alboan zehaztuta daudenak, **GAI ZERRENTA** honekin:

1. 2020ko otsailaren 26ko bileraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.
2. Txosten akademikoa.
3. Onartzea, hala badagokio, Fundazioaren 2020. urteko aurrekontu ekitaldiari dagokion itxiera edo deskargua.
4. Onartzea, hala badagokio, Fundazioaren 2021eko ekitaldiko aurrekontua.
5. Fundazioaren estatutuak aldatzeko onarpen prozesua burutzea.
6. Eskaerak eta galderak.

### **1) 2020ko otsailaren 26ko bileraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.**

Patronatuak 2020ko otsailaren 26an egindako bileraren akta onartu da.

### **2) Txosten akademikoa.**

Iñaki Esparzak laburbildu ditu pandemiaren ondorioz 2020ko ekitaldian ohiko jarduera akademikoa aurrera eramateko izandako zailtasunak. Hala ere, uste du egoera modu eraginkorrean garatu dela salbuespenezko egoeraren barruan. Azaldu du lidergo argia egon dela Errektoretzak gaia kudeatzerakoan, eta hori erabakigarria izan dela kudeaketa onerako.

Ander Aizpuruak galdetu du Uned-Bergarak online prestakuntzan duen esperientzia erakargarri izan den formatu horretako eskolak ugaritu diren aldi honetan. Zuzendariak erantzun du formatu horretako esperientziak erraztu egin duela online errealitate berrira egokitzea, beste unibertsitate batzuek ez bezala presekin egokitu beharrik izan gabe. Ander Aizpuruak esan du balioa eman behar zaiola alderdi horretan Uned-Bergarak metatutako esperientziari, eta aurrera egin behar dela gai horietan.

Jesús de Andrés jaunak azpimarratu du eskolen formatuak behar izan duen egokitzapena oso txikia izan dela, baina ebaluazio sistema egokitu egin behar izan dela. Hala ere, argitu du ebaluazio sistema hori ez dela modu iraunkorrean ezarri nahi duten formatua. Iñaki Esparzak ohartarazi du azterketak plataforma berri baten bidez egin zirela, eta plataforma hori azkar txertatu behar izan zela UNED-Bergarako funtzionamenduan, baina balorazioa oso positiboa izan da.

Bestalde, UNED-Bergarak ekimenen batekin parte hartu nahi du Uneden 50. urteurrenaren ospakizunetan. Jarduera horri eman nahi zaion formatua aztertzen ari gara, dagoen osasun egoera berezia kontuan hartuta.

Era berean, patrono guztiek azpimarratzen dute oso ona dela EAEn egoitza duten Unedeko hiru zentroek ahaleginak batzea baterako prestakuntza eta jarduerak eskaintzeko, horrek onurak ekarriko baitizkie zentro guztiei eta lurralde osoari. Hala ere, horrek ez du eragozten zentro bakoitzak bere jarduerak egitea.

### **3) Onartzea, hala badagokio, Fundazioaren 2020. urteko aurrekontu ekitaldiari dagokion itxiera edo deskargua.**

Iñaki Esparzak adierazi du aurrekontuak, noski, aldaketa batzuk islatzen dituela planifikatutako agertokiarekiko, pandemia egoerara egokitu beharra dagoelako. Adibidez, gastu informatikoa handiagoa izan da egokitze beharrak direla eta.

Auditoriaren behin betiko txostenik ez badago ere, Iñaki Esparzak aurreratu du auditoriak aldeko txostena egin duela, salbuespenik gabe.

Juanjo Álvarezek esan du gastuak % 6,17 murriztu badira ere, diru sarrerak halaber % 7,35 jaitsi direla, baina ez dela beharrezkoa izan patronatukideen aldetik aparteko ekarpenik egitea, dena koadratu ahal izan delako.

Horregatik guztiagatik, Patronatuaren Batzordeak erabaki du UNED-Bergara Fundazioaren 2020ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Likidazioa aktarekin batera doa, **1. eranskin** gisa, eta laburpen hau du:

Diru sarrerak eta ekarpenak guztira.....	963.937,83 €
Gastuak guztira.....	976.177,84 €
Guztira.....	-12.240,01 €

Aurrekontu ekitaldi arruntaren emaitza: -12.240,01 €

#### 4) Onartzea, hala badagokio, Fundazioaren 2021eko ekitaldiko aurrekontua.

Juanjo Álvarezek eskerrak eman dizkie patronatukideei Fundazioarekin izan duten inplikazioagatik eta pandemia garai zail hauetan egindako ekarpenei dagokienez erakunde guztiek egin duten ahaleginagatik.

Iñaki Esparzak adierazi du, egoera hain nahasia izan arren, jarduera berriak antolatzen ari direla 2021eko ekitaldirako, eta hori oso positibotzat jotzen da.

Adolfo Morais jaunak adierazi du 2021erako aurrekontuan jasotzen den zenbatekoa ez dela zuzena; beraz, zuzendu egin behar da, aldea 100 €-koa izanik. Bestalde, aurreko ekitaldiarekin alderatuta ekarpenak behera egin duela dirudien arren, kontuan hartu behar da 2020rako jasotzen den ekarpenak hazkunde puntual eta koiunturala izan zuela. Beraz, haien egiturazko ekarpena 2019ko ekitaldiarekin alderatu behar da, eta, horrela, igoera nabarmena da. Era berean, aurreratu du Eusko Jaurlaritzaren planteamendua dela handitzen jarraitzea EAEko hiru Uned zentzoei egiten dien ekarpena.

Markel Olano jaunak argitu du Aldundiak eutsi egin diola bere ekarpenari, Uned-eko giza baliabideen planari dagokionez egutegian jasotako premiei erantzuteko asmoz. Fase hori gaindituta, hurrengo ekitalditik aurrera, patronatuko kide den erakunde bakoitzaren ekarpenari buruzko gogoeta egin beharko da, eta ekarpen horien helburuak ezarri.

UNED-Bergara Fundazioaren 2021erako aurrekontu arrunta aurkeztu da, onartua izan dadin. Zuzendariak xehetasunez azaldu du.

Gastuak 1.045.253,16 eurokoak dira, eta hainbat kontzepturengatik aurreikusitako diru sarrerak 570.230,95 eurokoak dira; beraz, patronatukideen ekarpena 475.023 eurokoa izango da.

Batzordeak 2021erako aurrekontua eta patronatukideen ekarpen hauek onartu ditu:

Foru Aldundia	% 63,61	300.000 €
KUTXA	% 26,39	120.000 €
Bergarako Udala	% 10	55.023 €

Akta honekin batera doa onartutako 2021erako aurrekontuaren kopia, **2. eranskin** gisa.

### **5) Fundazioaren estatutuak aldatzeko onarpen prozesua burutzea.**

Erakunde guztiek estatutuak aldatzeko erabakia hartu ondoren, hura formalizatu eta publiko egitea erabaki da. Gogorarazten da Patronatuak 2020ko otsailaren 26an egindako bilkuraren aktan sartu zela estatutuen testu bategina, aurreko bileretan adostutako aldaketak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea egokitzearen ondoriozkoak jaso zituena. Eguneratze horri dagokionez, bilkura honetan estatutuen 13. artikulua eguneratzea erabaki da, laugarren apartatu bat gehituz. Apartatu horretan, patronatu-batzarren bilerak bideokonferentzia bidez edo beste komunikabide batzuen bidez egiteko aukera arautzen da, baita, salbuespen gisa, bilerarik egin gabe erabakiak hartzeko aukera ere; betiere aipatutako Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 9/2016 Legearen 23. artikulua 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitakoaren arabera. Akta honekin batera doa estatutuen testu eguneratua, **3. eranskin** gisa.

Estatutuen aldaketaren ondoren, 13. artikulua honela idatzita geratzen da:

**“13. artikulua:** erabakiak hartzeko quoruma eta gehiengoak

**1.-** Patronatua lehenengo deialdian, bai ohikoan bai ezohikoan, behar bezala eratuta gera dadin, beharrezkoa izango da kideen gehiengoa bertan egotea; bigarren deialdian, berriz, Patronatua behar bezala eratuta egongo da, bilerara bertaratutakoen kopurua edozein izanda ere, eta beti egon beharko dute lehendakariak eta idazkariak edo haien ordezkoeak.

**2.-** Patronatua balio osoz eratutzat joko da, baldin eta jarduneko kide guztiak biltzen badira eta bilkura egitea aho batez erabakitzen badute.

**3.-** Patronatuaren hainbat erabaki hartzeko, beharrezkoak izango dira ondorengo gehiengo hauek:

**A.-** Bertaratutako kideen **gehiengo soila**, bestelako gehiengorik ezartzen ez den erabakietarako Berdinketa gertatuz gero, lehendakariak kalitateko botoa izango du.

**B.- Gehiengo osoa:** Izaera ekonomikoa duten akordioek eta aurrekontuak edo gastuak aldatzea edo onartzea dakartenek, zuzenbidezko kideen gehiengo osoa beharko dute.

Erakunde, entitate edo enpresa fundatzaileek jarri beharreko zenbatekoak aldatzea badakarte, baliozkoak izateko, eragindako erakunde, entitate edo enpresen onarpena beharko dute.

4.- Patronatuaren bilkurak bideokonferentzia bidez edo telefono bidezko konferentzia anizkoitzaren bidez egin ahal izango dira, betiere organoko kide guztiek beharrezko baliabideak badituzte, komunikazioaren jarraipena bermatzen bada, eztabaidetan esku hartzeko eta botoa emateko aukera bermatzen bada, eta organoko idazkariak bertaratutako pertsonen identitatea aitortzen badu. Hori guztia aktan jasoko da, eta lehiakide bakoitzaren helbide elektronikoetara bidaliko da berehala. Kasu horretan ulertzen da bilera presidentea dagoen lekuan egiten dela.

Era berean, eta salbuespen gisa, bilera egin gabe ere hartu ahal izango ditu erabakiak patronatuak, betiere informazio- eta boto-eskubideak bermatuta badaude, botoa jaso dela jasota geratzen bada eta haren benetakotasuna bermatzen bada. Erabakia Fundazioaren helbidean eta emandako baliozko botoetatik azkena jasotzen den egunean hartu dela ulertzen da".

Azkenik, UNEDen estatutuen 8. artikuluan araututako osaera berriari dagokionez, Adolfo Morais Ezquerro jauna izango da batzordekide, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate eta Ikerketako sailburuorde gisa, eta hark onartu egin du kargua bilkura honetan bertan.

## 6) Eskakerak eta galderak.

**Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, lehendakariak bilera amaitutzat eman du 13:25ean, eta nik, idazkariak, egiaztatu dut.**

A handwritten signature in blue ink, consisting of a vertical line that curves into a loop at the bottom.A handwritten signature in blue ink, consisting of a horizontal line with a small loop in the middle.



D. Markel Olano Arrese  
D. Harkaitz Millan Etxezarreta (representado  
por Markel Olano Arrese)  
D. Gorka Artola Alberdi  
D. Jesús de Andrés Sanz  
D. Ander Aizpurua Susperregi  
D. Adolfo Morais Ezquerro  
D. Iñaki Esparza Leibar  
Dña. Maite Barruetabeña Zenekorta  
(secretaria)  
D. Juan José Álvarez Rubio (invitado)

**ACTA DE LA REUNIÓN DEL  
PATRONATO DE LA  
FUNDACIÓN UNED BERGARA,  
CELEBRADA EL DÍA 18 DE  
MARZO DE 2021, EN EL  
PALACIO DE LA DIPUTACIÓN  
FORAL DE GIPUZKOA.**

Siendo las 12:30 horas del día 18 de marzo de 2021, se reunieron los miembros del Patronato, detallados al margen, con el siguiente **ORDEN DEL DÍA**:

1. Lectura y aprobación, si procede, del acta de la reunión del día 26 de febrero de 2020.
2. Informe académico.
3. Aprobación, si procede, del cierre o descargo correspondiente al ejercicio presupuestario correspondiente al año 2020 de la Fundación.
4. Aprobación, si procede, del presupuesto de la Fundación correspondiente al ejercicio 2021.
5. Culminación del proceso de aprobación de la reforma de los estatutos de la Fundación.
6. Ruegos y preguntas.

**1º) Lectura y aprobación, si procede, del acta de la reunión del día 26 de febrero de 2020.**

Se aprueba el Acta de la reunión del Patronato de 26 de febrero de 2020.

**2º) Informe académico.**

D. Iñaki Esparza resume las complicaciones acaecidas durante el ejercicio 2020 para llevar adelante la actividad académica ordinario debido a la pandemia. No obstante, entiende que la situación se ha desarrollado de manera eficaz dentro de la situación excepcional. Aclara que ha habido un liderazgo claro a la hora de gestionar el tema por parte del Rectorado, lo cual ha sido decisivo para la buena gestión.

D. Ander Aizpurua pregunta si la experiencia en formación online que tiene la Uned-Bergara ha sido un reclamo en este periodo donde han proliferado clases en este formato. El director contesta que la experiencia en este formato ha facilitado la adaptación a la nueva realidad online, sin tener que adaptarse con las prisas que han tenido que hacerlo otras universidades. D. Ander Aizpurua dice que debe ponerse en valor la experiencia acumulada de la Uned-Bergara en este aspecto e ir avanzando en estos aspectos.

D. Jesús de Andrés remarca que la adaptación que ha necesitado el formato de las clases ha sido mínima, pero sí se ha tenido que adaptar el sistema de evaluación. No obstante, aclara que este sistema de evaluación no es el formato que quieren implantar de manera permanente. D. Iñaki Esparza, advierte que se llevaron a cabo los exámenes mediante una nueva plataforma que tuvo que integrarse en el funcionamiento de la UNED-Bergara de manera rápida, pero la valoración ha sido muy positiva.

En otro orden de temas, Uned-Bergara quiere participar con alguna iniciativa en las celebraciones por el 50º aniversario de la Uned. Se está analizando el formato que se quiere dar a esta actividad, teniendo en cuenta la especial situación sanitaria existente.

Asimismo, todos los patronos remarcan el interés que tiene que los tres centros de Uned con sede en la CAV aúnen sus esfuerzos para ofrecer formación y actividades conjuntas, lo cual aportará beneficios a todos los centros y a todo el territorio. Si bien, eso no obsta para que cada centro lleve a cabo actividades propias.

**3º) Aprobación, si procede, del cierre o descargo al ejercicio presupuestario correspondiente al año 2020 de la Fundación.**

d. Iñaki Esparza indica que evidentemente el presupuesto refleja ciertas variaciones respecto al escenario planificado, debido a la necesidad de adaptación a la situación de pandemia. Por ejemplo, el gasto informático ha sido más elevado por necesidades de adaptación.



Si bien no se cuenta con el informe definitivo de la auditoría, Iñaki Esparza adelanta que el resultado ha sido un informe favorable sin salvedades por parte de la auditoría.

D. Juanjo Álvarez indica que si bien los gastos han aminorado un 6,17%, los ingresos también han descendido un 7,35%, pero no ha hecho falta ninguna aportación extraordinaria por parte de los patronos, puesto que se ha podido cuadrar todo.

Por todo ello, la Junta del Patronato acuerda aprobar la liquidación del Presupuesto del año 2020 de la Fundación UNED-Bergara, que se acompaña al Acta como **Anexo nº 1** y que ofrece el siguiente resumen:

Total Ingresos y Aportaciones.....	963.937,83 €
Total Gastos .....	976.177,84 €
Total.....	-12.240,01 €

Resultado Ejercicio Presupuestario Ordinario: -12.240,01 €

**4º) Aprobación, si procede, del presupuesto de la Fundación correspondiente al ejercicio 2021.**

D. Juanjo Álvarez agradece a los patronos su implicación con la Fundación, y el esfuerzo que se ha hecho por parte de todas las entidades en relación a sus aportaciones en tiempos de pandemia tan complicados.

Iñaki Esparza indica que para el 2021, a pesar de la situación tan convulsa, se están organizando actividades nuevas para el ejercicio 2021, lo cual se valora de manera muy positiva.

D. Adolfo Morais indica que la cantidad que se recoge en el presupuesto para el 2021 no es el importe correcto, por lo tanto, debe corregirse, siendo una variación de 100€. Por otra parte, si bien puede parecer que la aportación ha disminuido respecto al ejercicio anterior, debe tenerse en cuenta que la aportación que se recoge para el 2020 fue una aportación con un incremento puntual y coyuntural. Por lo tanto, su aportación estructural debe compararse respecto al ejercicio 2019, con lo cual se evidencia el incremento. Asimismo, adelanta que el planteamiento del Gobierno Vasco es seguir incrementando su aportación a los tres centros Uned de la CAV.

D. Markel Olano aclara que la Diputación ha mantenido su aportación con la idea de atender las necesidades calendarizadas en relación al plan de recursos humanos de la Uned. Superada esta fase, a partir del siguiente ejercicio, deberá hacerse una reflexión de la aportación de cada institución miembro del patronato y establecer los objetivos de estas aportaciones.

Se presenta para su aprobación el presupuesto ordinario de la Fundación UNED-Bergara para el año 2021, que el Director explica en detalle.

Los gastos ascienden a la cantidad de 1.045.253,16€, siendo los ingresos previstos por distintos conceptos de 570.230,95€, por lo que la aportación de los patronos será de 475.023€.

La Junta aprueba el presupuesto para el año 2021 y las siguientes aportaciones de los patronos:

Diputación Foral	63,61%	300.000 €
KUTXA	26,39%	120.000 €
Ayunt. de Bergara	10%	55.023 €

Se acompaña a la presente Acta copia del Presupuesto para el año 2021 aprobado, como **Anexo nº 2**.

#### **5º) Culminación del proceso de aprobación de la reforma de los estatutos de la Fundación.**

Adoptado el acuerdo de modificación estatutaria por todas las entidades, se acuerda proceder a su formalización y elevación a público. Se recuerda que en el acta de la sesión del Patronato celebrada el 26 de febrero de 2020, ya se incorporó el texto refundido de los estatutos donde se recogieron las modificaciones acordadas en sesiones anteriores, así como las derivadas de la adaptación a la Ley 9/2016, de 2 de junio, de Fundaciones del País Vasco. En relación a esta actualización, se acuerda en esta sesión actualizar el artículo 13 de los estatutos añadiendo un apartado cuarto donde se regula la posibilidad de realizar las reuniones de las juntas de patronato por medio de videoconferencia o de otros medios de comunicación, así como, excepcionalmente, la posibilidad de adoptar acuerdos sin la celebración de la reunión, todo ello de acuerdo con lo previsto en los apartados 2 y 3 del artículo 23 de la Ley 9/2016 de Fundaciones del País Vasco. Se acompaña a la presente Acta el texto actualizado de los Estatutos, como **Anexo nº 3**.

Tras la modificación estatutaria el artículo 13 queda redactado en los siguientes términos:

#### **“Artículo 13º: Quórum y Mayorías para tomar acuerdos**

**1.-** Para que el Patronato quede válidamente constituido en primera convocatoria, tanto con carácter ordinario como extraordinario, será precisa la concurrencia de la mayoría de sus miembros; en segunda convocatoria será válida su constitución cualquiera que sea el número de los asistentes a la reunión, debiendo estar, en todo caso, el Presidente y Secretario o personas que les sustituyan.

**2.-** También se entenderá válidamente constituido el Patronato siempre que se reúnan todos sus miembros en ejercicio y acuerden por unanimidad la celebración de la sesión.

**3.-** Son necesarias las siguientes mayorías para adoptar determinados acuerdos del Patronato:

**A.- Mayoría Simple** de los miembros presentes para los acuerdos en que no se establezca otra mayoría. En caso de empate, la Presidencia tendrá voto de calidad

**B.- Mayoría Absoluta:** Cuando los acuerdos tengan carácter económico den lugar a la modificación o aprobación de los presupuestos o de los gastos, precisarán la mayoría absoluta de los miembros de derecho.

Si comportaran modificación de las cantidades que deban aportar las Instituciones, Entidades o Empresas fundadoras, necesitarán para su validez la aprobación de las que, en su caso, resulten afectadas.

4.- Las sesiones del Patronato podrán celebrarse por videoconferencia o por conferencia telefónica múltiple, siempre que todos los miembros del órgano dispongan de los medios necesarios, quede garantizada la continuación de la comunicación, la posibilidad de intervenir en las deliberaciones y la emisión del voto y, que la persona que ostente la secretaría del órgano, reconozca la identidad de las personas asistentes. De todo ello se dejará constancia en el acta, que se remitirá de inmediato a las direcciones de correo electrónico de cada concurrente. En este caso se entiende que la reunión se celebra en el lugar donde está la persona que la preside.

Asimismo, y con carácter excepcional, el patronato podrá adoptar acuerdos sin la celebración de la reunión, siempre que queden garantizados los derechos de información y de voto, que quede constancia de la recepción del voto y que se garantice su autenticidad. Se entiende que el acuerdo se adopta en el lugar del domicilio de la Fundación y en la fecha de recepción del último de los votos válidamente emitidos”.

Por último, y en relación a la nueva composición regulada en el artículo 8º de los estatutos de la UNED, será miembro del mismo D. Adolfo Morais Ezquerro, en calidad de Viceconsejero de Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, el cual acepta el cargo en esta misma sesión.

#### 6º) Ruegos y preguntas.

**Y no habiendo más asuntos que tratar el Sr. Presidente levanta la sesión, siendo las 13 horas y 25 minutos, lo que yo, Secretaria, certifico.**



San Martín Agirre Pl. 4  
20570 Bergara

Tel: 943 769 033  
Fax: 943 762 721

[www.uned.es/ca-bergara](http://www.uned.es/ca-bergara)

